



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERAKUNDE-ADIERAZPENA, GASTEIZKO 2030 HIRI AGENDA BABESTEKO – GASTEIZ 2030 ESTRATEGIA.

Gasteiz duela ia hiru hamarkada hasi zen jasangarritasunaren aldeko apustu irmoa egiten, hain zuzen ere, 1995ean Gasteizko Udala Aalborgeko Gutunari atxiki zitzaionetik, Iraunkortasunaren aldeko Europako Hirien Gutunari alegia. Atxikimendu horren ondorioz, Gasteizko Tokiko 21 Agenda egin zen, eta 2003an eta 2010ean agenda horretako bi ekintza-plan onartu ziren.

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak garapen jasangarriari buruzko 2030 Agenda onartu zuen eta horrek mundu mailako helburuak ezarri zituen, herrialdeek eta bertako gizarteek pertsona guztien bizitza hobetzeko ahaleginak egin ditzaten, inor atzean utzi gabe, ikuspegi soziala, kulturala, ekonomikoa eta ingurumenekoa abiapuntu hartuta.

Hain zuzen ere, eta helburu berarekin, Gasteizko udalbatzak 2030 Agendaren garapen jasangarriko helburuen aldeko erakunde-adierazpen bat onetsi zuen 2020ko irailaren 25ean, eta onartu egin zuen udala gai dela agenda unibertsal eta zabal bat politika publiko zehatz eta hautemangarri bihurtzeko, datozen urteetarako bide-orrizat hartuta, gizarte bidezkoago, askeago eta berdinzaleago bat garatzeko.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE APOYO A LA AGENDA URBANA DE VITORIA- GASTEIZ 2030 (AU2030VG) – ESTRATEGIA VITORIA-GASTEIZ 2030.

La firme apuesta de Vitoria-Gasteiz por la sostenibilidad cuenta ya con casi tres décadas de historia, desde la adhesión en 1995 por parte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (AVG) a la Carta de Aalborg, la Carta de las Ciudades Europeas por la Sostenibilidad. Esta adhesión dio lugar a un proceso que culminó con la elaboración de la Agenda 21 Local (A21L) de Vitoria-Gasteiz, y continuó con la aprobación, en 2003 y 2010 de dos planes de acción de A21L.

La aprobación el 25 de septiembre de 2015 de la Agenda 2030 sobre el desarrollo sostenible por parte de la Asamblea General de las Naciones Unidas marca los objetivos a nivel mundial para que los países y sus sociedades centren sus esfuerzos en mejorar la vida de todas las personas desde una perspectiva social, cultural, económica y medioambiental, sin dejar a nadie atrás.

Precisamente con ese mismo cometido, el 25 de septiembre de 2020 el Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz aprobó una declaración institucional a favor de la Agenda 2030 de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), asumiendo que el nivel municipal es capaz de traducir una agenda universal y amplia en políticas públicas concretas y tangibles, a seguir en los próximos años para el desarrollo de una sociedad más justa, libre e igualitaria.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Erakunde-adierazpen horren haritik, udalak lanean dihardu udal-gobernantzaren esparru berri bat eta hiri-politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko metodologia bat lantzen, Gasteizko 2030 Tokiko Agenda eta dagokion ekintza-plana prestatu, onartu eta abian jartzea xede. Ekintza plana 2022ko irailaren 9an formalizatu berria da.

Horrenbestez, Gasteizko Hiri Agendak antolatu egin du hiriak eta bertako herriek 2030era arte izango duten estrategia, munduko agendako Garapen Jasangarrirako Helburuei zein Espainiako Hiri Agendako helburu estrategikoei dagokienez; izan ere, Gasteiz izan da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak (MITMA) Espainiako Hiri Agendako tokiko ekintza-planen proiektu pilotu gisa aukeratutako 120 udalerrietako bat, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) esparruan, zeina Berreskurapeneko Europako “Next Generation EU” funtsen bidez finantzatu baita.

Gasteizko 2030 Hiri Agenda aukera bikaina izan da jasangarritasunaren arloan etorkizuneko baliabideen, estrategien eta proiektuen inguruko hausnarketa egiteko, parte-hartzaile askoren — gizarte-, ekonomia-, kultura- eta kirol- eragileak, elkarteak, GKE eta udalerriko herritar guztiak — partaidetza eta erantzunkidetasuna sustatzen duen lan-prozesu bat tarteko. Gobernantza berri hori Agenda aplikatuta eta garatuta sustatu eta sendotu behar da.

Fruto de la citada declaración institucional, el Ayuntamiento ha venido trabajando en un nuevo marco de gobernanza municipal y una metodología de diseño y evaluación de las políticas urbanas, con el objetivo de elaborar, aprobar y poner en marcha la Agenda Local 2030 de Vitoria-Gasteiz y su correspondiente plan de acción, que acaba de ser formalizado el 9 de septiembre de 2022.

La Agenda Urbana de Vitoria-Gasteiz organiza, así, la estrategia de la ciudad y sus pueblos de aquí al horizonte 2030 tanto en torno a los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la agenda mundial, como en torno a los Objetivos Estratégicos de la Agenda Urbana Española, dado que Vitoria-Gasteiz ha formado parte de los 120 municipios seleccionados por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (MITMA) como proyecto piloto de planes de acción local de la Agenda Urbana Española (AUE), en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR), financiado por el Instrumento Europeo de Recuperación “Next Generation EU”.

La elaboración de la Agenda Urbana de Vitoria-Gasteiz 2030 ha supuesto una excelente oportunidad para repensar los recursos, estrategias y proyectos de futuro en materia de sostenibilidad, a través de un proceso de trabajo que fomenta la participación y la corresponsabilidad del conjunto de los agentes sociales, económicos, culturales, deportivos, asociaciones, ONG, y la ciudadanía del municipio, una nueva gobernanza que se ha de promover y consolidar en la aplicación y en el desarrollo de la Agenda.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Beraz, Gasteizko Hiri Agendaren Ekintza Planak (AU2030VG) zehaztasuna ematen du, eta bide-orri orokor gisa jokatzen du, Gasteiz osorako garapen jasangarri eta inklusiboko estrategia gisa, 2030era begira, eta, ezinbestean, garatu, eguneratu eta jarraitu beharko da partaidetzako gobernantzaren baitan. Nabarmentzekoa da klima-neutraltasunerako eta klima-aldaketara egokitzeko Europako misioak txertatu izana ingurumena, ekonomia eta gizartea eraldatzeko palanka gisa, inor atzean utzi gabe, eta Klimaren eta Energia Jasangarriaren Ekintza Plana oinarri gisa hartuta energia- eta klima-helburuak lortzeko.

Horregatik, erakunde-adierazpen honen bidez, Gasteizko udalbatzak BABESA ematen dio Gasteizko Tokiko Hiri Agendari, zeina hirian eta herrietan Garapen iraunkorreko helburuak betetzera bideratuta baitago, inor atzean gera ez dadin gizarte gisa bultzatzen dugun ingurune jasangarrian.

Así, el Plan de Acción de la Agenda Urbana de Vitoria-Gasteiz (AU2030VG) aporta concreción de la Agenda y actúa como hoja de ruta de carácter integral erigida como estrategia de desarrollo sostenible e inclusivo a 2030 para el conjunto de Vitoria-Gasteiz, que necesariamente habrá de ser objeto de desarrollo, actualización y seguimiento en un marco de gobernanza participativa. Destaca la incorporación de las misiones europeas de neutralidad climática y adaptación al cambio climático como palancas de transformación ambiental, económica y social, no dejando a nadie atrás, con el Plan de Acción de Clima y Energía Sostenible como instrumento base en la consecución de los objetivos energéticos y climáticos.

Es por ello que, a través de la presente declaración institucional, la corporación municipal de Vitoria-Gasteiz muestra su APOYO a la Agenda Urbana Local de Vitoria-Gasteiz (AU2030VG) dirigida hacia la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible en la ciudad y sus pueblos con el fin de que nadie se quede atrás en un entorno sostenible por el que seguimos trabajando como sociedad.